



Giza baliabideak eta immigrazioa mintzagai

TOLOSA ▶ SOS Arrazakeriak hainbat jardunaldi antolatu ditu gaurtik larunbatera bitarte

GAUR ▶ Etorकिनen boto eskubideari buruz hitz egingo dute alderdi politikoetako ordezkariak ▶ 3

OREXA ▶

Kultur Astearen balorazio positiboa

Iragan larunbatean bukatu zen ekitaldiz beteriko egitaraua ▶ 6

AMASA ▶



I. GARCIA

Hurrengo egunetan festa giroa nagusi

Sanmartinak izango dituzte ekitaldi ugariarekin ▶ 4

BALIARRAIN ▶

Gaur bideo emaldiak irekiko du Kultur Astea

Abenduaren 11ra arte luzatuko da ▶ 5



Saneamendu sarea hobetzeko lanak hasi dituzte

ARESO ▶ Areson saneamendu sarea hobetzeko lanei ekin diete dagoeneko. Bideanbarrean sare guztiak konponduko dituzte, elektrizitate eta telefoniarenak. Halaber, uren hornikuntza hobetzeko ere aprobetxatuko dute. Obra Pagozelay enpresak egingen du eta lau hilabete eta erdian amaituko dituztela aurreikus

dute. Baina ez dira herrian dauden obra bakarrak. Izan ere, Elutseder industrialdean ere konponketak egitekotan dira. Hau handitzeko obrak abenduaren amaieran hasiko dituzte, eta zazpi milioitiko gorako kostua izanen dute. Bestalde, Aresoko zenbait baserrietara iristeko pistak berritzeko asmoa dute. **NAIARA GARZIA ▶ 7**

EKONOMIA ▶

Gaur arratsaldean ekingo diote Babarrunaren Asteari

Bost egunetan zehar hainbat ekitaldi izango dira; gaur, Roberto Ruizek idatzitako 'Pul, pul, pul Tolosako babarruna' liburua aurkeztuko dute 19:00etan

ESTI EZEIZA

Gaur hasiko da Tolosako Babarrunaren Astea, «urtean zehar egindako lana ikusteko balio duen astea». Hala, bost egunetan zehar jaki honekin lotutako hainbat lehiaketa eta ekitaldi izango dira. Lehenengoa gaur arratsaldean izango da, 19:00etan, Roberto Ruizek idatzitako 'Pul, pul, pul Tolosako babarruna' liburua aurkeztuko dute Zerkausian. Alkateak joan den asteo aurkezpenean azaldu zuenez, «Tolosak produktu honekiko dituen sentimendu eta ideiak biltzen eta isladatzen



Joan den urteko babarrun lakariaren enkanteko irudi bat; Donostiako Don Serapio jatebeak erosi zuen. J.A.

ditu lan honetan Frontoi Jate-txeko sukaldariak».

Hala ere, aste honetako ekitaldi nagusiena, larunbatean ekingo den Tolosako Babarrunaren Ekizaleen Lehiaketa da. Hemen, babarrun ale onena zein den sarituko dute eta jarrera, irabazlearen lakari bat (hiru kilo inguru) enkantean aterako dira. Joan den urtean Mari Karmen Iradi iruratarraren babarrunak irabazi zuen. Hala, Tolosako Babarrunaren elkarteko Lehendakariaren lakaria 1.100 eurotan saldu zuen eta hemen irabazitako dirua Maliko (Afrika) Nekazari eskola batentzat bideratu zuten. Bestalde, jende gehien biltzen duen ekitaldietako bat, igandean egiten den herri bazkaria da.

Herri kirolei ere txoko bat egiten zaie aste honetako egitarauan: IX. aldiz Artzain Txakur Lehiaketa ekingo dute Iurreamendiko zelaietan. Egun berean, II. Munduko Aizkolari Azkarrenaren Txapelketa jokatuko dute Beotibar Frontoian.

MARI KARMEN IRADI ▶ TOLOSAKO BABARRUN KOFRADIAKO LEHENDAKARIA

«Iaz 20.000 kilo bildu genituen eta aurten ere antzeko ibiliko gara»

Mari Karmen Iradi iruratarrak irabazi zuen joan den urtean babarrun onenari saria. Honez gain, Tolosako Babarrun elkarteko Lehendakaria ere bada, eta aurtengo uzta inguruko xehetasunak eman dizkio TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI.

Zer moduzkoa izan da aurten-go uzta?

Udaberrian lehorretik hasi ginen eta nekez jaio zen babarruna. Gero ia, uda aldera eurria hasi zuen eta gauzak konpondu ziren. Hortik aurrera ongi etorri da, baina gerora beste lehorraldi bat izan da eta ez du behar bezala fruitua hartu, horregatik, beste urteetan baino uzta txikiagoarekin geratu

gara. Hala ere, gelditu dena oso ongi bildu da.

Beraz, kopurua gutxitu da, baina kalitatea mantentzen da?

Nahiko kalitate onekoa atera da bai. Hala ere, iaz 20.000 kilo inguru bildu genituen eta aurten ere antzeko ibiliko gara. **Ettxeko produktu bat izatetik, kalitatezko produktu bat izatera igaro dela esan al dezakegu?**

Lehen etxero egiten genuen, eta besterik etzegoen jateko eta elikagai nagusi bezala erabiltzen genuen. Orain berriz, beste hainbat janari ere nastasten ditugu. Hala, arrakasta handia lortu du, orain ere, pro-

duktu oso ona delako. Ondoren berriz, elkarte bat sortu genuen eta hazia ere aukeratu egin genuen, eta bi motatakoekin egiten dugu lan: txikiarekin eta handiarekin.

Lehiaketan bi haziak sartzen al dira?

Bai, baina betiere, elkartean izena emanda egon behar dute. Orain 70 gaude elkarte barruan. Eta hauek, aurretik aukeratutako hazi hori erein behar izaten dute.

Zertan da desberdina Tolosako babarruna?

Kontrolatutako hazia da, eta jateko garaian oso gozoa. Bestetik, labela dauka, eta honek beste babarrunetatik bereiz-



I. TERRADILLOS

ten du. Honek konfidantza ematen digu ekizaleei, eta baita erosleei ere.

Labela eramateak esijentzia asko eskatzen al ditu?

Kontrol bat eraman beharra dago, zeren eta, beste lekuetatik ere asko etortzen da. Horregatik, nekazariak, neurtu eta

ikusi egiten dugu. Hala, bada-kigu zer nolako ekizalepena dagoen eta zer jaso daitekeen. Gero, behin biltzen dugun garaian, elkartera eraman behar da dena aletzera. Hemen, bereiztu eta zakuetan jartzen da. Modu honetan, dena elkartetik ateraten dela, ezin dugu baikoitzak bere etxean egin.

Gipuzkoa osoko babarrunak sar daitezke elkartean...

Bai, klimarengatik etabar. Babarrunak hezetasuna eta eguzkia behar du eta gehiegi berotzen duen toki horietan ez du horrenbeste ematen, eta kaskarragoa ateraten da.

Zer eguraldi baldintza behar ditu babarrunak ona ateratzeko?

Hezetasun handia eta eguzkia behar ditu, ez da toki lehorrerako egiten. Horregatik Gipuzkoa mailan mantentzen dugu. ◀

iragarki laburrak ▶

Pablo Gorosabel, 40
Leizaola - 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel. eta Fax: 943 45 55 87
mng. 969 368 994

Anoeta. Hartziko ebean 90 m2ko ebebizitza eraberritzeko, kanpora begira.

Belauntza. Pabillioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.

Belauntza. Bifamiliarra, bi solairu eta 270 m2ko lursailarekin.

Berastegi. Familia bakarreko ebea salgai, 3.500 m2ko lursailarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Gela bateko apartamentua. Garajea aukeran.

Tolosa. Zabalarreta. Ebebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldia,

terrazza, bainugela, komuna, trasteleku eta garaje ibxia.

Tolosa. San Frantzisko, 75m2ko atikoa salgai. Eraberritzeko.

Tolosa. Errementari kalean, 3 logelako atikoa. Egongela, sukaldia, eta bainugela. Berritua.

Tolosa. Errementari kalean ebebizitza salgai. Eraberritua. 2 logela, 24m2ko egongela, bainugela eta sukaldia.

Tolosa. Benta Haundin, bi solairuko ebebizitza salgai. Eraberritzeko.

Tolosa. Santa Klara, 90 m2ko ebebizitza salgai. 4 logela, sukaldia, egongela eta bainugelarekin.

Tolosa. San Esteban, kanpora begirako 100m2ko ebebizitza salgai. Berritu beharrekoa.

Tolosa. Maituna zaharra. 15 garaje berri, guztiak ibxiai. 30 m2tik aurrera. Karga-jasogailuen bitarteko bidea.

Eraikitze bidea.

Tolosa. Belate. Trasteleku berriak, argia eta aire erazgailuarekin. 9.480 eurotik aurrera.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Ugaran Goena, bi bizitako baserria salgai, 110m2 solairu begirako. Berritu beharrekoa.

Ventosa (Errioxa). 3 solairuko familia bakarreko ebebizitza salgai urbanizazio pribatuan.

Etbebizitza alokairuan.

Alokairuan dauden ebebizitzen inguruko informazio gehiago jaso daitezke bulegora bertara joanda.

GIZARTEA ▶

Jai batzordearen bilera, gaur, Kultur Etxean

Bihar, 19:30ean, jai batzordearen bilera izango da Kultur Etxean. Zaldunita bezperako danborradan parte hartzen duten taldeei eta elkarteei dei egiten diete bertaratu daitezzen.

KIROLAK ▶

Hernaldeko rolleski igoera larunbatean

Alpino Uzturre elkarteak larunbat honetan, 16:00etan Hernaldeko rolleski igoera antolatatu du. Irteera Tolosako Belate auzotik izango da. Informazio gehiago nahi duenak edota izena emateko 685 77 65 04 telefono zenbakira hots egin beharko du, edo alpinouzturre@begira.com helbidera idatzi. Rolleskia fondo eskialariek asfalto gainean entrenatzeko erabiltzen duten tresna da.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 -

- 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ **DYA:** 672536
 - ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

GIZARTEA ▶

Immigrazioa eta giza eskubideak hizpide gaurtik larunbatera

SOS Arrazakeriak etorkinen inguruko jardunaldiak antolatatu ditu; etorkinen boto eskubidearen inguruan ariko dira gaur

IÑIGO TERRADILLOS

SOS Arrazakeriako Tolosako ordezkariak *Immigrazioa eta Giza Eskubideak* izenburupean jardunaldiak antolatatu ditu gaur hasi eta larunbata bitarte. Hala, hitzaldiek eta argazki erakusketak, bakarrizketak eta narrazioak osatuko dituzte jardunaldiok.

Eguno immigrazio politikarekin zerikusia duten bi gai aukeratu ditute gaur eta bihar izango diren hitzaldietarako, eta hainbat aditu eta politikari izango dira gaiaren inguruan hitz egiten. Horretaz gain, etorkinek euren lurra utzi eta herrialde aberatsetara etortzeko egin beharreko bidearen inguruan argazki erakusketa jarriko dute ikusgai gaurtik larunbatera arte Kultur Etxean. Larunbatean, bestalde, hainbat ekitaldi izango dira San Frantzisko ibiltokian: erakusketa, bakarrizketa, narrazioa, idazketa...

«Herrialde aberats eta pobreen artean hesiak eraikitzea, Hego Muga deiturikoan bezala, bizitza duin baten bila dato-



Gertutik hiltzea: hondoratze baten sekuntzia-ren zati bat. HITZA

ren hainbeste *kanpoko* jende kanpoan uzten duen Mendebaldeko munduaren eskubideen defentsa-politikaren kontra-esanaren espresio fisiko besterik ez da», dio SOS Arrazakeriak. Bestalde, Tolosan antolaturiko *Immigrazioa eta giza eskubideak* jardunaldiekin,

azkenaldian herritarren artean hautsak harrotu dituen egungo migrazio politikaren hainbat arloren inguruan, interesatuak egon daitezkeen guztiei informazioa bildu, iritzia eman eta hausnarketa egiteko aukera zabaldu nahi die elkarte honen.

AGUSTIN UNZURRUNZAGA ▶ SOS ARRAZAKERIA ELKARTEKO KIDEA

«Zergatik baztertu behar dira eskubide politikoak jaioterriaren arabera?»

SOS Arrazakeriako Agustin Unzurrunzagak moderatzaile eta hizlari lanak egingo ditu gaur, 20:00etatik aurrera. Berekin batera, alderdi politiko bakoitzeko —Alderdi Popularrari ere eskatu zioten, baina azkenean ordezkariak ez izatea erabaki dute— ordezkari bat izango da etorkinak eta boto eskubidearen inguruan mintzatzeko. Jardunaldi honen inguruan hitz egin dugu Unzurrunzagarekin.

Nola osatuko duzue biharko jardunaldia?
Nik elkartearen ikuspuntua emango dut, eta alderdi politikoetako ordezkariak alderdiaren beraren ikuspuntua. Ikus-

puntu guztiak biltzea da gure asmoa.
Zein da elkarte bezala zuek eskatzen duzuen?
Gurean bizi diren etorkinek ez dute botorako eskubiderik etorkinak direlako soilik. Ez dute eskubide politikorik. Espainiako Konstituzioan artikulatu hori aldatu beharko litzateke 1968an Norbegiarekin egin zenean aldatu zen bezala. Dena den, ez dugu horrelako zerbait eskatzen, izan ere, kasu horretan, akordio bat sinatu zuten Norbegiak eta Espainiak, eta horren bidez, Espainian norbegiar batek bozkatzeko aukera du, Norbegian espainiar batek botoa emate-

ko aukera duen bezala. Guretzat akordio horiek alde batera utzita, hemen bizi den orok izan beharko luke eskubide hori, mugarik gabe. Zergatik eskubide politikoak baztertu jaioterriaren arabera? Kanpainak bultzatzen ditugu guk hori eskatuz Udal desberdinei.
Zein da jardunaldiaren helburua?
Alderdi politiko desberdinek hirirtasunari buruz iritzi diotena jakin nahi dugu, eta bestetik, herritarrek, bertan nahiz atzerrian jaiotakoek, ikustea alderdiek gaiaren inguruan uste dutena.
Eta orohar, jardunaldi hauen asmoa?

EGITARAUA ▶

GAUR

20:00. *Etorkinak eta boto eskubidea. Eskubide politikoak guztientzat edo gutxi batzuentzat soilik?* Kultur Etxean moderatzailea: Agustin Unzurrunzaga (SOS Arrazakeria). Hizlariak: Gemma Gonzalez de Txabarri, Gemma Zabaleta, Oskar Matute eta Karnele Antxutegi Gasteizko Legebiltzarreko parlamentariak eta Pello Albite (EHUko irakaslea).

BIHAR

20:00. *Lagunduta ez dauden adin txikiko atzeritarrek. Gure adin txikikoak ere badira?* hitzaldia Kultur Etxean. Moderatzailea: Joxe Elizondo. Hizlariak: Vicenç Galea i Montero (DRARI), Diego Lorente (SOS Madrid), Peio Aierbe (Mugak).

ETZI

11:00. San Frantzisko ibiltokian, Artxiboaren parean:
▶ Erakusketa: *Hesiaren bi aldeak.*
▶ Bakarrizketa: *May Gorostiaga.*
▶ Umeentzako narrazioa: *Alekos.*
▶ Nire historia kontatuko dizut: hainbat etorkinek idazketa libre jardueran.

GAURTIK LARUNBATERA

18:30-20:30. Argazki erakusketa Kultur Etxean: *Gertutik hiltzea: hondoratze baten sekuntzia.* Juan Medina.



I. T.

Azken egunetan pil-pilean da goen gai baten inguruan ariko gara, eta herritarrek gogoeta egitea nahi dugu. ◀

AMASA ▶ SAN MARTIN JAIK

Samartinak izango dituzte datozen bi asteburutan Amasan

Gaur izango da suziri jaurtiketa eta azaroaren 19a bitarte ekintza ugari izango dituzte amasarrek jai giroan gozatzeko

IÑIGO ASENSIO

Urtero legez, San Martin jaietarako prest dira amasako herri-tarrak. Atzoko mondeju afariaren ostean, gaur izango da suziri jaurtiketa 19:00etan. Honen ostean, Martina sorginaren etorrera eta pintxo dastaketarekin emango diote jarraipena festari.

Hilaren 19ra arte, festa giroan izango da herria, Martina sorginaren agurrarekin Samartinak amaitzen diren arte.



Lehenengo urteko gazteen egunean bikain aritu ziren amasarrek. HITZA

EGITARUA ▶

GAUR

19:00 Suziri jaurtiketa Kultur Etxetik. Martina sorginaren etorrera. Pintxo dastaketa.

BIHAR (GAZTEEN EGUNA)

06:00 Gazteen gosaria Ongi Etorrin trikitilariekin eta dultzaineroekin.

14:00 Gazteen bazkaria Uxotok.

16:30 Soka-dantza eta aurrekuia plazan. Trikitilarien erromeria.

21:00 Afaria Arantzabin.

AZAROA 10, OSTIRALA

17:15 Pirritx eta Porrotx pailazoak. Ondoren, txokolate jatea.

22:00 XV. Bakailao Lehiaketa. Ondoren, bakailao eta sagardo dastaketa.

23:30 Dantzaldia Laiotz taldearekin.

AZAROA 11, LARUNBATA (SAN MARTIN EGUNA)

11:00 Meza nagusia. Ondoren, ahari-jokoa eta asto karrera mozturoririk.

18:00 Bertso jaialdia: Aritz Zerain, Iñaki Zelaia, Unai Agirre eta Xabier Legarreta.

Gai-jartzailea: Jon Zaldúa. 23:00 Dantzaldia Abiba DJrekin

AZAROA 12, IGANDEA
11:00 Ume krosa

18:00 Herri kirolak herritarren artean.

AZAROA 18, LARUNBATA

12:00 Andoni Zuriarrain eta Jokin Etxeberria amasarrek Urki eta Arkaitz Arteagaren aurka segan eta lokotx biltzen.

14:00 Herri bazkaria.

18:30 Argazki lehiaketako erakusketa eta sari banaketa Kultur Etxean.

23:30 Etxabe anaia. Ondoren Xabi dantzaleku.

AZAROA 19, IGANDEA

11:00 XIII. mendiatloia.

18:00 XVII. Inbixoraren Aldatzea eta Martina sorginari agurra.

VILLABONA ▶

EHNA tramitatuko dute larunbatean Kultur Etxean

EHNA tramitatzeko aukera izango da larunbatean, hilaren 11an, Villabonako Kultur Etxean. Larunbat honetan ez da arratsalde EHNA egiterik izango, horregatik goizeko bederatzi terdrietatik eguerdiko ordubetetara bitarteko ordutegian egin beharko da.

VILLABONA ▶

Bilboko manifestaziorako autobusa

Larunbatean *Euskal Herriak autodeterminazioa* lelopean Bilbon egingo den manifestaldirako autobusa irtengo da Villabonatik. Autobusa elizatik irtengo da eta izen-ematea Iratzarren egin daiteke edota 943 69 16 10 telefonora deituz.

TOLOSALDEA ▶ AHT

Konzentrazioak egin dituzte obrak salatzeko



Anoetan ostiraleko konzentrazioan 25 lagun inguru bildu ziren. HITZA

I.ASENSIO

AHTren aurkako konzentrazioak egin zituzten ostiralean Anoetan, Villabonan eta Tolosan. Konzentrazio hauetan AHT Gelditu! Elkarlanak, «salaketa larria» egin du Euskal Y-aren lanak hasi dituztelako. Bide batez, herritarrei dei egiten diete «proiektu txikitzaile hori berehala geldiaraz dezatela exijitzeko» egiten ari diren mobilizazioetan parte hartzeko.

Hurrengo egunetan mobilizazio berriak egingo dituzte: Hilaren 10an, Goierrri eta Tolo-

saldea mailako manifestazioa izango da Urretxun, 19:00etan, Areizaga Kalebaran plazatik abiatuz. Halaber, hilaren 18an Euskal Herri mailako manifestazioa deitu dute Gasteizen, arratsaldeko bostetan, Iparralde Gizarte Etxetik. Bertara joateko autobusa antolatu dute eskualdean. Villabonako Kiroldegitik 15:00etan, Anoetako Apaetxe aurretik 15:15ean eta Tolosako Triangulotik 15:30ean abiatuko da autobusa Gasteiz aldera. Autobuserako txartelak ohiko tokietan izango dira salgai zortzi eurotan.

hitza **txokoa** ^{lagunen}

HITZaren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZaren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

TOLOSALDEA
honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI
KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR

OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZaren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

IKAZTEGIETA ▶

XVI. Kross herrikoia hurrengo astean izango da

Ikaztegiatiko XVI. Kross herrikoia hilaren 19rako antolatu du herrigintza Kultur Kirol elkarteak. 10 kilometroko luzera izango du eta 11:00etan hasiko da. Izen-ematea www.herri-krossa.com helbidean eginez gero 6 euro ordaindu beharko dira, eta lasterketatiko egunean eginez gero, aldiz, 8 euro, 09:00etatik 10:30era bitarte. Umeena 10:45ean izango da. Iristen diren lehenengo 200 korrikalariei kamisetak banatuko zaizkie.

AMEZKETA ▶

'Sanmar sound festibal' prestatu dute larunbaterako

Amezketako Gazte Taldeak eta Ospelak antolaturik larunbaterako *Sanmar Soun Festibal* izango dute. Goizean hasiko dira ekitaldiak. Erromeria, bazkaria eta barre egiteko eta ondo pasatzeko jokuak ez dira faltako. Iluntzean triki poteoa, afaria San Martinen eta kontzertuak izango dira. Akanpatzeko aukera ere izango da, nahi duenarentzat. Eguraldiarekin arazoak izanez gero herrian bertan egingo dituzte ekitaldi guztiak.

IKAZTEGIETA ▶

KZgunearen bisita hurrengo astelehenean

KZgunean 2 mintegi izango dira hilabete honetan zehar. Gaiak eta bisita ordutegiak honako hauek izango dira: hilaren 13an egingo dena 16:00etatik 20:00etara izango da, eta gaia *Etetik eros ezazu*, 17:00etatik 19:00etara bitarte. Hurrengo hilaren 27an, ordu-tegi berdinarekin, baina gaia *Mikologia. Iberdrola* izango da.

ALEGIA ▶

Azaro Kulturalean perretxikoak mintzagai

Txotxongiloen saioa etzi izango da, eta aste osoan zehar herriko argazkiak

N. URBIZU

Alegiko Azaro Kulturalean aurrera jarraitzen du: aste honetan dauden ekitaldiak hauek izango dira: bihar 18:00etan umeentzako hitzaldia izango da. Ibon Azpilikuetak bideratuko du *Gure basoko perretxikoak* izeneko hitzaldia.

Igandean Artikutzara egindako ibilaldia aprobeztatu zuten perretxiko ezberdinak ikusteko, eta biharkoa teorikoagoa izango da, baina interes berdinekoa.

Etzi, hilaren 10ean, hain zuzen, umeentzako txotxongiloak izango dira ikusgai, 17:30etik aurrera, Alegiko Kultur Etxean. Izenburua *Eman eta gero* du, eta haur eta guraso guztiak daude gonbidatuak. Ekitaldi hau Kutxak sustatu eta finantziatu du.

Igandean kirolari egingo zaio bide: Alegiko bidegorrian zehar egingo dute ibilaldia bizikletaz. Ondoren, gynnkana prestatu dute herriko plazan.

Argazki erakusketa

Bide batez, gogoratu Alegia herriko duela ia 100 urteko argazkiak eta gaur egungoak daudela ikusgai Kultur Etxean, hilaren 13ra arte, eta goizez eta arratsaldean egin daiteke bisita. Herriko aurreko itxura gaur egungoarekin alderatu egiten dituzten irudiak daude bertan.

BALIARRAIN ▶ KULTURA



Lehenengo urtean ere hainbat hitzaldi eta antzerki ikusi ahal izan zituzten Kultur Astearen baitan. JOXEMI SAIZAR

Kultur Astean gaur murgilduko dira

Gaur izango da lehen ekitaldia, mendien gaineko bideo emanaldiarekin; Txan magoak ere egingo du saioa

NEREA URBIZU

Baliarraingo Kultur Astea hasiteko bideo emanaldia aukeratu dute. Bertan ezagun egin ahal zaizkigun mendiak ikusi ahal izango dituzte udaletxeko kultur gelara hurbiltzen direnek.

Abenduaren 11ra arte iraungo du kultur jardunaldiak, gaurtik hasita. Azpimarratzekoak, antolatu dituzten hitzaldiak, aurregiak margotzeko eta ilea aldatzeko tailerra, bideo emanaldia, Txan Magoa eta jubilatuen eguna dira. Zartagi jatetxean hamaiketakoak eta bazkaria egingo dituzte.

Babarrun eta gaztain jatea Atari Soro pilotalekuan egingo dute hilaren 26an. Hau Arkaitz elkarteak antolatu du.

Baliarrain bisitatzeko aitzakia aproposa izango da beraz, gaurtik aurrera, abenduaren 11ra arte.

EGITARUA ▶ EGUNEZ EGUN

GAUR

19:30. Panpi Olaizolaren eskutik: *Ipar Euskal Herriko mendiak* Diaporama, udaletxeko kultur gelan.

BIHAR

19:30. *Nola kontsumitu garapen iraunkorraren ikuspegitik* hitzaldia. Maider Etxaide izango da hizlaria, kultur gelan.

ETZI

19:30. Hitzaldia. *Geobiologia eta etxebizitza naturala*, Josu Jauregirekin.

LARUNBATA

17:00. Haur eta gaztetxoentzako tailerra: musu margoketa eta ileapaindegia.

IGANDEA, JUBILATU EGUNA

11:30. Hamaiketako Zartagi jatetxean.

12:30. Herriko elizan, meza nagusia.

13:15. Bideo emanaldia.

14:00. Bazkaria Zartagi jatetxean.

HILAK 23, OSTEGUNA

17:00. Idoia Sanchez ipuin-kontalaria.

IGANDEA, HILAK 26

14:00. Babarrun eta gaztain jatea Atari Soron, Arkaitz elkarteak antolatuta.

ABENDUAK 11

16:15. Haurrentzako merienda.
17:15. Txan Magoa udaletxeko kultur gelan.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztiaren prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶

Lurdes Aguirreurreta Lasa

Andrea

Atzo hil zen, 48 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
—Goian bego—



Bere seme-alabak: Aitor eta Karmele, Arnaitz eta Amaia, Jon Ander eta Nerea, Enekoitz, Benat eta Lahiene; bilobak: Naia eta Aner; gurasoak: Jose Manuel eta Josefa; anai-arrebak: Antonio eta Mari Jose, Tere eta Iñaki, Jose Mari, Miguel eta Maribel, Jesus Mari eta Eukene, Jose eta Elena, Itziar eta Jose Javier, Arantxa eta Jose, Javier eta Maria Jesus; osaba-izebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitetzela GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN BARTOLOME parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea: Astue kalea, 10-3A
oharra ▶ gorputz beila Tolosako Funeraria Vascongada
Tanatorioan dago. Gaur asteazkena arratsaldeko laurak arte.

IBARRAN, 2006ko azaroaren 8an

OREXA ▶ KULTURA

Antolatzaileek Kultur Astearen balorazio positiboa egin dute

Urterik urte zailagoa egiten zaie antolatzaileei berrikuntzak barneratzea, aurtengoan, ordea, eskaintza zabala egin diete herritar guztiei

MADDI SOROA

Hamabost egunetan zehar Orexako udaletxeko ganbara jau-regi bilakatu da, kulturaren jauregi. Urriaren 25ean hasi eta azararen 4ra arte, kulturarako hamaika aukera izan da paraje ederrean. 19 urtez jarraian, kulturaz gozatu dute orexatarrek. Aurtengoan ere ez du kulturak hutsik egin beraz.

Orexa eta auzo-herrien arteko auziak izenpeko hitzaldiarekin hasi zen 2006ko Kultur Astea. Aranzadi Zientzia elkarte Dabid Zapirain izan zen hitzaldiaren buru eta 1490. urtera arteko bidaia egin zuen herritarrekin batera. Modu honetan, urteetan zehar Orexarekin zerikusia duten datuen bilketa egin ondoren, herritarrei luzatu zien bildutako informazioa. Umorea etorri zen ondoren herrira, bertan izan baitzen Txirene taldea *Nora hoa neska* antzezlanaren eskaintzeko.

Haurrek ere izan zuten arrazoirik ongi pasatzeko. Besteak beste, Orexako mendietan barnea ibili baitziren gaztainak biltzen, ondoren, gurasoekin batera, bilduriko gaztainak erre eta giro goxoan afari legea egiteko. Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, «haurrak mendizaleztasunaz bustitzeko» egin zen ekintza hura.

Kultur Asteko zerranda ez zen haurren mendi ibilaldiarekin amaitu, hamaika ekintza burutu baitziren ondorengo egunetan. Hala nola, Uitzit-Orexa ibilaldia eta herri bazkaria, Mikel Markez eta Pako Aristiren *Tabuak salda egiteko* emaldia, *Bake pozesua: zertan da?* lelopean Rafa Diezen eskutik hitzaldia, Zelanda Berria-

ren inguruko diaporama edota haur jolasak.

Hasten den oro amaitzen den bezala, pasa den larunbatean Orexako Kultur Asteak amaiera izan zuen eta ez nolana gainera, *Orexak 100 biztanle* lelopeko galak hartu baitzuen toki udaletxeko ganbaran. Afari legea egitearekin batera galaren aurkezpenarekin hasi ziren herriko bi gazte. Hala, mota ezberdinetako sariak banatu zituzten herritarren artean mereziz emendu ezberdinengatik.

Sukaldari lanetan aritzen direnei, herri lanak egiten dituztenei edota Orexan erroldatzen azkena izandakoari eman zizkieten sariak. Sari banaketaren ondoren, DJ Bull-en musikarekin gorputza astintzeko parada izan zuten bertaraturikoe.

Orexak 100 biztanle

Bada hilabete Orexak 100 biztanleko kopurua gainditu zuela. Gipuzkoako herririk txikiena izan da urtetan zehar; orain, ordea, muzin egin beharko dio posizio horri. Herritarrek azaldu dutenaren arabera, gutxienez 30 urte pasa behar izan dira gaur dagoen haur kopurua berreskuratzeko. Gogoratu, une honetan, 22 haur bizi dela Orexan eta hauei esker iritsi dela herria 100dik gorako biztanleko kopurua izatera. Herritarren ustetan, «Orexak beste bizi bat du orain, herrira iristen zara eta haurrak ikusten dituzu plazan, jolasean... poza ematen du horrek». Biztanle kopurua haztearen beste arrazoietakoa bat «herriko jendea herrian geratu» izana dela adierazi dute herritarrek.



Nora hoa neska antzezlanaren une bat. HITZA



Kultur Astearen baitan egindako gala afaria. HITZA



Kultur Asteari amaiera emateko egindako galako aurkezleak. HITZA

IBARRA ▶



Artxiboko irudia. MADDI SOROA

Ligako lehen porrota ekarri zuen etxera Ibarrek

Burlatarrek gol aukerak hobeto aprobeztatu jakin zuten, 3-1 irabaziz

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean Burlatan jokaturiko partidaren emaitza ez zen ona izan ibarrentzat, izan ere, ligako lehen porrota eskuratu zuten. Jokalariek, ez zuten jakin norgehiagokan zehar izandako gol aukerak aprobeztatu. Bai ordea Burlatak, 3-1 ekoarekin atzean utzi baitzuen Ibarra.

Nekatu itxura eman zuen Ibarra taldeak, indarririk gabe balego bezala; ondorioz, ez zuten jokoa agintea eskuratzeko aukerarik izan. Aitzitik, Burlatarrek ere ez zuten nagusitasunik izan jokoan, balaia alde batetik bestera ibili baitzen etengabe abiadura handiko jokoan.

Lehen zatia amaitzerako, 1-0 zioen markagailuak nafarren alde. Bigarren zatian Ibarra norgehiagoka berdinduko zuenaren tankera zuten, baina gauzak ez ziren batera aldatu eta partidak lehenengo zatien itxura bera mantendu zuen. Ibarren gol bakarra, partidako 32. minutuan burutu zuen Unai Labacak, penalti bikoitzaz.

Igandean punturik eskuratu ez arren, sailkapen orokorreko bigarren postuan jarraitzen du Ibarrek. Lehen postuan, berriz, Logroño (Espainia) taldea dago.

Larunbat honetan, Arnedo E.S. taldearen aurka jokatuko du Ibarrek. Partida, ohi bezala Belabieta Kiroldegian izango da 18:30ean.

iragarki laburrak ▶

LANA

Ileapaintzailea. Honekin ciber ileapaindegiak laguntzaile eta ofizialak behar ditu. 943 67 22 44 edo 635 73 63 75

SALGAI

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995ekoa. 153.000km liburuarekin. 18ko llantak eta tebuak. Egoera oso onean. 14.000 euro. 943 65 41 43.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Leidor areto berria egiteko Tolosako Udalak eta Fipuzkoako Foru Aldundiak dirutza inbertitu dute. Helburuetako bat akustika hobetzea zen. Hori lortu denik ez dute denek uste, ordea. Zein iritzi duzu zuk? Hobetu egin al da? Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia.

HIRIGINTZA ▶



Areson pare bat indusmakina lanerako prest. N. GARZIA

Martxora arte luzatuko dituzte saneamendu sarearen obrak Areson

Leitzan kooperatibatakoak amaitutzat eman diren arren, konstruktoreak Udala juiziora eramatea erabaki du

NAIARA GARZIA

Areson saneamendu sarea hobetzeko obrak hasi dituzte. Bideanbarrean sare guztiak konponduko dituzte, elektrizitate eta telefoniararen, eta honetaz gain, uren hornikuntza hobetzeko ere aprobetxatuko dute. Obra Pagozelay enpresak egiten du eta 4 hilabete eta erdian amaituko dute, printzipioz.

Konponketak herriko beheko zatian egiten dituzte, hau da, Peruneko zubitik Oillenearaino. Herriko beste zatiak ez dituzte ukituko, goikoa, batik bat, baina beste fase batetarako prest utziko dute.

Kaleak altxatu behar dituzte, zolaketa ere aldatu egingo dute. Errepidean galtzada-harri leuna jarriko dute, eta bide bazterrean kanpora harria ateratzen zaion hormigoia berezi bat. Materiak ezberdinak erabiliko dituzte beraz, espaloi eta errepidea egiteko, baina biak altxera berean utziko dituztela argi utzi du Mikel Baraibar herriko alkateak.

Askotan atzerapenak izaten direnez gero, epea betetzen ez badute enpresak penalizazio batzuek izango dituela azaldu du Aresoko alkateak, «egun bakoitzeko diru kantitate bat ordaindu beharko dute».

Herrian obra gehiago

Elutseder industrialdean ere konponketak egitekotan dira. Industrialdea handitzeko obrak abenduaren amaieran hasiko dira eta 7 milioitik gorako kostea izanen dute, obra handi xamarra, beraz. Bestalde, Aresoko zenbait baserrietara iristen diren pistak berri-tuko dituzte, baserri hauek urte askotan zain egon ondoren. Konponketa hauek 118.000 eurotako aurrekontua izanen dute, eta 70.000 euro inguru Nafarroako Gobernuak emanen ditu diru-laguntza moduan. Beraz, Belaku, Iruñegi eta Pilipebordara doazen pistak asfaltatu egiten dituzte. Er-laxera doan pista, berriz, zabaldu egingen dute, eta borda hauetara bideak irekiko dituzte, Ahuntzenea, Eguarrea, Martiñenea eta Mañeneara,

Obra ondorea Leitzan

Patxi Arrazolan egin dituzten obrak amaitu dira behingoz. Saneamendu sareak berri-tu dituzte, zolaketa eta bidenabarrean, kaleak iriki behar zirenez, argi indarraren sareak, gasarena eta telefoniararena berri-tzeko ere aprobetxatu dute. 2004. urtean hasi ziren obrare-

kin, eta printzipioz 5 hilabete-takoa izan behar zuena ikaragarri luzatu zen, ia 2 urte behar izan baitituzte obrak amaitzeko. Leitzako alkatearen ustez, arazo nagusia obra zuzendaritzarekin izan zuten. «Lehiaketara atera genuen obra zuzendaritza eta proiektua egin behar zuen pertsona kontratatze- eta gaizki aukeratu genuen. Pertsona hori ez zen gai obra aurrera eramateko eta hasieratik arazoekin hasi ginen, bai berarekin eta honen ondorioz, bai enpresarekin ere». Azkenean obra zuzendariak obra utzi zuen.

Enpresak orain Udala juiziora eramatea erabaki du, baita obra zuzendariak ere, Udalak ez baitu hauek eskatzen duten guztia ordaindu nahi. «Guk adituaren-txosten bat eskatu diogu injeriturza kolegioari, zer ordaindu behar zaien eta zer ez zahazteko». Obrak amaitu arren, beste kapitulu berri bat hasi du Udalarentzat, epai-ketena. «Nik uste legealdia amaitu arte epaitegietan arazok izanen ditugula. Obra, jada, alde batetik, amaituta dago. Orain konponketak gehiago iraun dutelako enpresak dirua eskatzen digu, eta guk ezezkoa eman genuen arren, bide hau hartzea erabaki du».

LEITZA ▶ HEZKUNTZA

Guraso elkartea aste honetan bildu da

Elkarteak kide berriak behar dituen arren, ez dute gurasoak animatzea lortzen

N. GARZIA

Herenegun Guraso elkarteak bilera egin zuen garrantzizko hainbat gai jorrazteko. Lehenik eta behin, aurreko urteko kontuen egoera aztertu zuten, hauek zertan dauden ikusteko. Honetaz gain, duela gutxi institutuko kontseilua egin zenez, bertan jorrazteko gaiak ere aztertu zituzten, ikasleen faltana, batik bat. Arau berrien arabera lehenengo bi akats larriekin etxera deituko litzateke eta hirugarrenarekin, etxera bidali. Kurtsoa hasi berri denez, gutxiegia eta aprobetxatuen inguruan hitz egiteko goizegi zenez, hurrengo kon-

tseilurako utzi zuten gai hau bertaratuek. Ikasleen ateraldiak ere aztertu zituzten. Aste honetan bertan, adibidez, lehenengo DBHkoak Donostira joanen dira, bertako Zientzia museoa ikustera.

Azkenik, Guraso elkartearen egoera bera ere aztertu zuten, hau da, kideen egoera. «Kide berriak behar ditugu eta ez da inor animatzen», dio Rosa Leizak, Guraso elkarte-ko lehendakarietako batek. Lehengo urtean ere kide berriak behar zituztela esan zuten, baina haien eskaerak ez zuten harrera gehiegia izan gurasoen artean. «Interes gutxi erakusten dute».

LEITZA ▶ KIROLA

Aurrerak beste 3 puntu irabazi ditu Arkiskilen

Partida amaitu ondoren, arratsaldekoa egin zuten leitzarrek eta aranaztarrek giro onean



Aurtengo denboraldiko lehenengo partida. J. ASTIBIA

N. GARZIA

Ingandean Arkiskilen Etxarri Aranatzekoen aurka 3 eta 1 irabazi zuten leitzarrek. Partidari lasai xamar ekin zitoten, hasieran erlaxatuta baitzuden eta aurkariak lehenengo golarekin, aurrea hartu zuten. Pixkanaka jokoan sartu ziren heinean Antton Gomezek gola sartu bazuen ere, markagailua 2-1 ean jarri, ez zen partida erraza izandu. 3 eta 1ekoak Iker Bengoetxeak sartu

zuen. Aurrerako arduradunek esan duten bezala, «joku oso ona ez egin arren, aukera guztiak aprobetxatu genituen. Ongi ibili ginen, defentsa sendoa erekin».

Amaitu ondoren arratsaldekoa denek elkarrekin egin zuten. «Beti partidu polita izaten da, haiek inguru honetakoak baitira eta gustora aritzen gara beraien aurka. Oso ongi moldatzen gara».

Partida honekin Aurrerak beste 3 puntu irabazi ditu.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko azaroaren 8a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **17** hotzena **15** BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

Zuzendariordea. Iñigo Terradillos. **Kudeatzailera.** Jon Mujika. **Publizitateak.** 661 678818. tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa. 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info. **Villabona-Aizt.** 687 410022. villabona-aizt@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta. 687 410022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info. **Ibarra.** 687 410032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea. 687 410034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info. **Leitza.** 687 410118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zuzurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA 902 82 02 01
 (zabalentzaz argitzeko, harpidetuen egiteko...)

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Altoz. Liburutegian, 17:00etatik aurrera, Idoia Sanchez ipuin kontalariaren saioa izango da.
Baliarrain. Kultur Astearen baitan, 19:30ean Panpi Olaizolaren eskutik: *Ipar Euskal Herriko mendiak* Diaporama izango dute.
Gaztelu. Kutxak eta Uli Mankomunitateak antolatuta, elkartean, 17:00etan hitzaldia izango da eta gaia: *Idorria nola aurrea hartu eta tratatu.*
Tolosa. Pul, pul, pul Tolosako babarruna liburuaren aurkezpena izango da 19:00etan, Zerkausion.
Tolosa. Tolosako XX. Babarrun Lehiaketa dela eta, lehiaketaren ostean izango den bazkarirako sarrerak salgai daude dagoeneko. Interesatuak, Gure Kaiola elkartera, lan egunetan, 19:30etatik 21:00era joan behar dute.
Villabona. Aitziber Ibarbia mendizalearen mendi proiektzioa, Alpeetako espedizioari buruzkoa. Gaztebean, 20:00etatik aurrera.

ERAKUSKETAK

Alegia. *Alegia, lehen eta orain* argazki erakusketa ikusgai jarri dute, Kultur Ebean.
Tolosa. *Esperientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarriketaren bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepasoa, elkarriketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).
20:00-21:00. *Irauli uhinak.*
21:00-23:00. *Bide okerretik.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Aisian ere, euskaraz

TOLOSA ▶ Iragan igandean, Samaniego-Orixe ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoek bizikleta-ibiladi bat burutu zuten Leitzaaranen



Iragan igandean Samaniego-Orixe antolatutako bizikleta-ibilaldian parte hartu zuten guraso, ikasle eta irakasleak. HITZA

ERREDAKZIOA

Euskara normalizatzea eta bere zabalkundean eragitea guztion lana da. Edozein urrats txiki handi bilakatzen da, beti ere hizkuntzaren aldekoa bada. Samaniego-Orixe ikastetxeok iragan igandean aurrera eramandako ekimenean urrats txiki-handi horietako bat burutu zuten. Oraingoan, bizikleta-ibilaldi bat egin zuten ikasle, irakasle eta gurasoek. Guztira 80 partaide inguru bildu ziren.

Leitzatik abiatu ziren guztiak ere, autobusa eta bizikletak garraiatzeko kamioa baliatuta, haruntza joateko. Txirrindulari onenen pare, Leitzaarangoko bidegorritik barrena Andoainera iritsi ziren, eta, bertan, Tolosako Inauteri-Dianak ondo dioen moduan *Legez edanaz eta janaz berdindu* zituzten barrenak. Gaztetxo nahiz heldu ederki igaro zuten eguna, eguraldia lagun izan zutelarik. Tolosako ikastetxeak ekitaldi hau plangintza batean barneratu du. Euskararen erabile-

raren normalizazioaz gain, bestelako helburuak ditu: Alde batetik, mendizaletasuna bultzatu nahi du belaunaldi berrien artean, bai eta bizimodu osasuntsuaren onura zabaldu ere. Bestalde, Tolosaldea eta ingurua ezagutzera eman nahi diete guraso eta ikasleei, beti ere talde giroan. Halaber, elkarren arteko harremanak sendotzea izan dute xede ekitaldi honen bitartez; hala, guraso, irakasle eta ikasle parte hartzea bultzatu nahi izan dituzte, batzuk ibilbidea

prestatzen, beste batzuk baliabideak bilatzen... Elkarlanean bizikidetzara eraginez. Azkenik, ingurumenaren aldeko keinu bat ere egin nahi izan dute, hau errespetatzeko jarrerak landuz. Helburu hauek guztiak, noski, ondo pasatzea ahanzi gabe. Irteera honen arrakasta ikusita, Samaniego-Orixe ikastetxeko antolatzaileek jakitera eman dutenez, (hau egin den moduan, hilean behin, beste zenbait egingo ditugu ikasturtean).

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Zorionak etxeko eta Migelen partetik!
 Ez geunden ahaztuta!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...